

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2016ko ABUZTUAREN 31an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2016ko Abuztuaren 31an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.55 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
 Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
 Ander Leon Nanclares
 Angel Serrano Martinez
 Aritz Sarria Saraqueta
 Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...


Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2016ko uztailaren 28an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 28 de julio.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Larraulgo Larrola baserriko lurretan dagoen txabola handitzeko obra baimena eskaera, M.K.T./ Solicitud de licencia de obra para ampliación de chabola en terrenos del Caserío Larrola de Larraul.**
- 4. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**
- 5. Beste batzuk/Otros.**
- 6. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.**

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2016 urteko uztailaren 28ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

21/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 29koa, Herriko kultur batzordeak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

22/2016 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 29koa, M.A.M. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

23/2016 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 4koa, 2016ko 2.hiruhilabetari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA **LARRAULGO LARROLA BASERRIKO LURRETAN DAGOEN TXABOLA HANDITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.K.T.**

Ikusirik M.K.T. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Larrola baserriko lurretan dagoen txabola handitzeko obra baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik, Udal Aholkulari teknikoak, 2016ko abuztuaren 30ean eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO LARROLA BASERRIAREN LURRETAN ABELTZAINZARI LOTURIKO TXABOLAREN ZABALPEN ESKAERARI TXOSTENA

M.K.T. andreak, gaur egun Larraulgo Larrola baserriaren lurretan dagoen abeltzaintzari loturiko txabolaren zabalpena egiteko baimena eskatzen du, txabolaren argazki, zabalpenaren bi plano eta aurrekontu bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Eskarian, gaur egungo 35 m² ko eraikinari, estalpea kendu eta 120m² arte zabaldu nahi dela esaten da. Txabola hau, ipar aldera irekia egongo litzateke. Paretak kanpotik oholetzkoak izango dira, teilatuaren egitura egurrezkoa litzateke eta honen bukaera txapa gorrizkoa. Txabola handitzeko aurkeztu den aurrekontua 11.775,70€-koa da.

Aterpea Larraulgo lur ez hiritargariaren barruan dago, D.20 produkzio zonaldean. Nekazaritzarekin loturiko eraikina kokatua dagoen lursaila, 1 poligonoko 23 lursaila da eta beste 3 lursailekin batera 311172 U finka osatzen dute.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Larraulgo arau subsidiarioen 62º artikulua honela dio:

Artículo 62.- Tramitación de licencias en el Suelo No Urbanizable.

La tramitación de licencias en el suelo no urbanizable se realizará siguiendo el procedimiento señalado en el artículo 14 de las presentes ordenanzas para el suelo urbano.

Para la solicitud de licencias de realización de obras e instalaciones que guarden relación con el destino de la finca sobre la que se asienten, basta la presentación en el Ayuntamiento del correspondiente proyecto técnico, visado por el respectivo colegio profesional -en el caso de que la envergadura de la obra así lo exija- acompañado del informe favorable del Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

De cualquier forma, en el caso de que las obras, a juicio del Ayuntamiento, no exijan por sus características y envergadura la redacción de un proyecto técnico, bastará adjuntar a la solicitud de licencia correspondiente un plano de situación y otro de emplazamiento a las escalas especificadas, pudiendo el Ayuntamiento, si lo considera oportuno, dispensar de la obligación de presentar el informe del Departamento de Agricultura del organismo competente.

En todas las solicitudes de licencia de obras o actuaciones en el suelo no urbanizable, juntamente con el proyecto o documentación de solicitud correspondiente, se presentará un plano de situación a escala 1:5000.

Lurzoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituen azaroaren 24-ko 82/1998 Foru Dekretua jarraituz, Larraulgo udalak dagokion txostena eskatu zuen Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentura uztailaren 15-ean.

Hilabeteko epean erantzuna jaso ez denez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariarekin hitz egin ondoren, aldekoa dela ulertzen da.

38/1999 Eraikinen Antolamenduen Legearen 2.2 artikulua, proiektua behar duten eraikinak zehazten ditu;


“2.2. Tendrán la consideración de edificación a los efectos de lo dispuesto en esta Ley, y requerirán un proyecto según lo establecido en el artículo 4, las siguientes obras:

a) Obras de edificación de nueva construcción, excepto aquellas construcciones de escasa entidad constructiva y sencillez técnica que no tengan, de forma eventual o permanente, carácter residencial ni público y se desarrollen en una sola planta.”

Aurrekoa jarraituz, animalien aterpearen zabalpenak ez du proiekturik behar.

Lur ez hiritargarran kokatu behar diren eraikinen kanpo itxura Larraulgo 48 artikuluan arautzen dira:

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- . Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

- . Como material de fachada se utilizará el revoco pintado y la piedra, prohibiéndose expresamente las terminaciones de bloque de hormigón visto y de ladrillo caravista, aunque la utilización de este último material se admitirá siempre que no supere el 25% de la superficie de cada fachada.

- . Como material de cubierta se utilizará preferentemente la teja cerámica, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.

....

Eraikinaren egurrezko bukaerak inguruko ohiko eraikinen bukaerekin bat egin dezake.

Animalien aterpearen kokapenez, eta Larraulgo 69^a artikulua arabera, eraikina ondoko partzelatik 8m-tara egon beharko da gutxienez, beste landa lurreko eraikinak ez diren arteko gutxieneko distantzia 50m-koa izanik.

Gaur egungo estalpeak ez du ondoko lursaileri gorde beharreko distantzia betetzen. Hau honela izanik, **ondoko lursailen jabeen baimena sinatua** ekarri beharko da udaletxera.

Aurrekoa betetzen bada, obra baimena ematea egokia dela informatzen dut.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: M.K.T. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Larrola baserriaren lurretan abeltzaintzari loturiko txabolaren zabalpenerako obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: M.K.T. andreari jakitera ematea, lanak hasi aurretik ondoko lursailen jabeen baimena sinatua Udaletxean aurkeztu beharko duela.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

LAUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

LIDOINSA	410,00
KIROLZER	54,10
DIONISIO ORMAZABAL	7,28
CORREOS	6,82
EBA ERKIZIA	723,45
IZFE	6,40
IZFE	1.900,08
TOLOMENDI	152,50
IBERDROLA	166,24
IBERDROLA	481,83
IBERDROLA	62,62
IBERDROLA	118,89
IBERDROLA	26,44
MOVISTAR	48,40
MOVISTAR	18,37

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.183,42** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.10 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA